

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

5422

HUTS-ZUZENKETA, honako agindu honena: Agindua, 2022ko azaroaren 18koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako kidego eta eskaletan enplegu publikoa finkatzeko prozesu bereziak eta enplegu publikoa finkatzeko salbuespenezko prozesuak.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariari buruzko abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2.b) artikulua xedatzen duenez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak Jaurkitzearen Idazkaritzako eta Legebiltzarreko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, baldin eta nabarmenak badira, dokumentuen esanahia aldatzen ez badute, eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Zuzenketa egiteko eskaera testua argitaratzeko agindua eman duen organoak egingo du.

Horrelako hutsak atzeman dira Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2022ko azaroaren 18ko Aginduan, zeinaren bidez iragartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako kidego eta eskaletan enplegu publikoa finkatzeko prozesu bereziak eta enplegu publikoa finkatzeko salbuespenezko prozesuak. Agindu hori 2022ko azaroaren 23ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (224. zk.) argitaratu zen. Hori dela-eta, dagokion zuzenketa egiten da hemen.

2022/5055 (353/155) orrialdean, XXIV. eranskinaren 2.3. apartatuan,

hau dio:

«– Ikasketa-eremu hauetako gradu- edo ingeniari-tituluak:».

Baina hau esan behar du:

«– Ikasketa-eremu hauetako gradu-, lizentzia- edo ingeniari-tituluak:».

2022/5055 (353/163) orrialdean, XXV. eranskinaren 2.3. apartatuan,

hau dio:

«– Ikasketa-eremu hauetako gradu- edo ingeniari-tituluak:».

Baina hau esan behar du:

«– Ikasketa-eremu hauetako gradu-, lizentzia- edo ingeniari-tituluak:».

2022/5055 (353/338) orrialdean, LV. eranskinaren 6. apartatuko 14. puntuan,

hau dio:

«14.– AAA/253/2015 Agindua, azaroaren 17koa, Kantauriko eta ipar-mendebaldeko arrantza-tegi nazionalako erroldetako itsasontzientzako kudeaketa-plana ezartzen duena.».

Baina hau esan behar du:

«14.– AAA/2534/2015 Agindua, azaroaren 17koa, Kantauriko eta ipar-mendebaldeko arrantza-tegi nazionalako erroldetako itsasontzientzako kudeaketa-plana ezartzen duena.».